



GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

Batzarkide Talde Mistoia (ARALAR)
Grupo Juntero Mixto (ARALAR)

SARRERA-ENTRADA	 GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA
	2006 OTS. 14 FEB. 14
	Zk./N.º 1266
Esp. Exp.	07/C/12/1250

MAHAIARI

Rebeka Ubera Aranzetak, ARALAR taldearen batzarkideak, Gipuzkoako Batzar Nagusien Jardueraren Araudiari jarraiki, idatzi honen bidez **18/98 SUMARIOARI BURUZKO EZ ARAUZKO PROPOSAMENA** aurkezten du Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin.

ZIOA

18/98 sumarioaren epaiketak aurrera darrai. Bere oinarrian duen tesi bakarra zera da, erabat zilegiak diren jarduera politiko eta sozialak, ideologikoki ETaren zenbait postuladurekin bat egiten dutenaren argudiopean, erakunde armatuaren konplize, laguntzaile edo kide izatearekin parekatzea. Tesiaren zentzugabekeria nabarmenak agerian uzten du estrategia politiko jakin baten esanetara hartutako neurriak direla. Estrategia horren bidez, gure herriko esparru sozial eta politiko zabal bat espainiar legeriatik kanpo utzi nahi da eta Euskal Herriak nazio gisara aurrera egin dezan hainbat esparrutatik egiten den lan antolatua oztopatu. Horretarako, hainbat herritar eta talderen askatasun zibil eta politikoak urratu dira: adierazpen askatasuna, biltzeko eta elkartzeko eskubideak, askatasun ideologikoa edota disidentziarako eskubidea.

Talante berriaz eta bake prozesuaren atariaz larregi hitz egiten den momentu politiko honetan, sumario horrek atzeragoko denborak ekartzen dizkigu gogora. Are gehiago, sumario hau azken hamarkadetako barrabaskeria juridikorik handiena da 59 auziperatu eta mila urteko kartzela eskaerarekin. Euskal Herriak erreakzionatu beharra du, ezin da isilik geratu.

Gainera, Euskal Herriak behar duen bake prozesua abian jartzeko oztopo da eta, neurri horretan, Espainiako Gobernuak aukera ezin hobea du prozesu horrekiko bere konpromisoa eta borondatea erakusteko.

Egoera honetan, ondorengo ez arauzko proposamena aurkezten dugu Gipuzkoako Batzar Nagusietan, giza eskubideen urraketak gainditu behar direla eta Euskal Herriak behar duen bake prozesuan alde guztiek urratsak eman behar dituztela defendatzen duten guztien babesarekin onartuko den esperantzaz:



GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES DE GIPUZKOA

Batzarkide Talde Mistoa (ARALAR)
Grupo Juntero Mixto (ARALAR)

EZ ARAUZKO PROPOSAMENA

- 1.- Gipuzkoako Batzar Nagusiek 18/98 sumarioa dela eta Entzutegi Nazionalean hasi den epaiketa politikoa dela azpimarratu nahi dute. Abiapuntu politiko eta antidemokratikoa duen epaiketa da. Ideien kontrako prozedura baten aurrean gaude.
- 2.- Pertsona eta taldeen askatasun zibil eta politikoak adierazpen askatasuna, biltzeko eta elkartzeko eskubideak, askatasun ideologikoa eta disidentziarako eskubidea ukatzen dituen prozesua da.
- 3.- Epaiketa hori kaltegarria da bizi dugun une politikoan aurrera egin ahal izateko. Kaltegarria da konponbiderako.
- 4.- Estatu Espainiarreko Gobernuari eskatzen diogu, instrukzioak eman diezazkiola Fiskaltza Nagusiari akusazio publikoa bertan behera utz dezan.
- 5.- Makrosumario hau urteetan euskal gizartearen kontra egin den bidegabekeria juridiko handiena da. Batzar Nagusiek epaiketa bertan behera uztea eskatzeko eta inportatuei atxikimendu eta babesa agertzeko egingo diren mobilizazioetan parte hartzera deitu nahi dituzte herritarrak.
- 5.- Elkartasuna adierazi nahi diegu auzipetutako gizon-emakume, enpresa-elkarte eta senideei.

Donostia, 2006ko otsailak 13

Rebeca Ubera Aranzeta
ARALAR Batzarkide Taldea